# Xedapen Orokorrak

## LEHENDAKARITZA

### 2125

7/1994 LEGEA, maiatzaren 27koa, merkataritza iharduerari buruzkoa.

Eusko Legebiltzarrak honako Legea honartu duela jakinarazten zaie Euskadiko herritar guztiei:

**MAIATZAREN 27KO 7/1994 LEGEA, MERKATARITZA IHARDUERARI BURUZKOA.**

**Zioen adierazpena**

Gure Autonomi Elkartean lehen aldiz merkataritza-iharduera antolatu duen maiatzaren 19ko 9/1983 Legea indarrean jarri zenetik hona hamar urte baino gehiago igaro diren honetan, iharduera horren administrazio-arau berriak egiteko beharra sortu da zenbait gorabehera dela eta.

Esan beharra dago 9/1983 Legea erreferentzia egokia dela gauza askotarako eta hura aplikatzetik eratorritako praktika testu berri osorako argibide izan dela. Halere, funtsezko aginduetako batzuk berrikusi behar dira, gure barne-merkataritzaren etorkizuna aurrikusiz, hori izango baita araubideak oinarritzat izango duen eremu materiala.

Hain zuzen, 1986.eko urtarrilaren lean sartu ginen Europako Elkartean, eta estatuen bateratze-bide dinamikoa den horren unerik gailenena Europako Merkatu Bakarra ihardunean jartzea da. Gertaera horrek legezko eta egitezko aldaketak eragingo ditu, eta horiek direla eta, gizarte eta ekonomia-harremanak berriz egituratuko dira. Gauzak horrela, tokiko merkatuek eta merkatu txikiek gero eta erreferentzia zentzugabeagoa osatuko dute, eta handiak, zabalak eta lehiarako prest daudenak hartuko dira kontuan.

Gure barne-merkatua eta merkataritza-enpresak bultzatu behar dituen gaurkotasun- eta berritasun-asmoak agerpen asko ditu araubide berrian.

Batetik, legearen eremu materialak merkataritzaren betidaniko ikusmoldea gainditu du. Merkataritza ekoizpenaren eta kontsumoaren arteko beharrezko maila delakoa zabalago hartzen da, bien arteko lotura askotan gertatzen baita bitartekari baten banaketa-zerbitzuen beharrik izan gabe. Bestetik, salgaiak banatzen dituen enpresa baten iharduera lege honi atxiki behar zaio, salgaiak kontsumorako direnentz kontuan izan gabe. Azkenik, edozein zerbitzu-enpresak bere iharduera lege honen arabera egokitu beharko du, zerbitzu horiei buruzko berariazko araubideren batek arautzen ez duenean.

Gaurkotasunerako interesgarria den beste ezaugarri bat betidanikoetatik bereizten diren merkataritza-formulak arautzea da, gaur arte gure legedian ageri ez zirenak, hala nola, urrutiko salmenta, sustapeneko salmenta, aldizko salmenta eta makina automatikoen

# Disposiciones Generales

## PRESIDENCIA

### 2125

LEY 7/1994, de 27 de mayo, de la actividad comercial.

Se hace saber a todos los ciudadanos de Euskadi que el Parlamento Vasco ha aprobado la siguiente:

**LEY 7/1994, DE 27 DE MAYO, DE LA ACTIVIDAD COMERCIAL.**

**Exposición de motivos**

Transcurridos más de diez años desde la entrada en vigor de la Ley 9/1983, de 19 de mayo, que supone la primera experiencia ordenadora de la actividad comercial en nuestra Comunidad Autónoma, una serie de circunstancias aconsejan una nueva regulación administrativa de esta actividad.

Ha de comenzarse por señalar que la Ley 9/1983 constituye una referencia válida en muchos aspectos y que la práctica derivada de su aplicación informa completamente el nuevo texto. No obstante, algunos de sus preceptos sustanciales han de revisarse ante las perspectivas de nuestro mercado interior, ámbito material sobre el que se proyecta esta normativa.

En efecto, el 1 de enero de 1986 tiene lugar nuestro ingreso en las Comunidades Europeas, proceso dinámico de integración de Estados cuyo punto álgido es la puesta en marcha del Mercado Único Europeo. Esta circunstancia acarrea cambios de derecho y de hecho de los que va a resultar una nueva configuración de las relaciones sociales y económicas. En este orden de cosas cada vez tendrá menos sentido la referencia a mercados locales y cerrados para dar paso a mercados más amplios, abiertos y competidos.

El espíritu actualizador y modernizador que debe alumbrar nuestro mercado interior y nuestras empresas comerciales tiene múltiples manifestaciones en la nueva regulación.

En primer lugar, el ámbito material de la ley supera la tradicional concepción del comercio. Su consideración como eslabón intermedio necesario entre producción y consumo se amplía, ya que la conexión entre ambos se produce en múltiples supuestos sin necesidad de los servicios de distribución de un mediador. En otro sentido, la actividad de una empresa que distribuye productos debe quedar sometida a esta ley con independencia de que los mismos sean de consumo o no. Por otra parte, cualquier empresa que preste servicios debe ajustar su actividad a esta ley en lo no regulado por normativa específica relativa a los mismos.

Otra evidencia actualizadora interesante la constituye la regulación de fórmulas comerciales diferentes de las tradicionales que o son desconocidas en nuestra legislación hasta la fecha, como la venta a distancia, venta promocional, venta ocasional, venta a través de

bidezkoa, edo behar bezainbatean arautuak izan ez direnak.

Eraberritzearen gaurkotasun-asmo hori testu berriak islatzen duen merkataritza-enpresaren eta bere iharduerareren ikuskeran ere nabarmena da. Batetik, merkatariek euren negozioa ezagutu behar dute, ihardueraak garaiz egitamutu: azken finean, enpresa antolatu behar dute. Bestetik, enpresek ez dute merkatua eta enpresaren derrigorrezko gardentasuna nahas dezakeen arauz kanpoko iharduerarik izan behar, bestela ez baitira bermatuko merkatu horretan biltzen diren interes desberdinak, batzuetan oso elkarren aurkakoak izaten direnak.

Eraberritzearen berritasun-asmoa nabarmen gertatzen da, autonomi elkarteko araua izanik berorren aginduetan gai horretako araugintza-aginpidea agortzeko ahalegina egiten den aldetik. Eremu hori zehazten ari dira Konstituzio Auzitegiaren zenbait adierazpen, arlo honekin lotuta dauden edo berekoak diren gaiei buruzkoak, hala nola, ekonomia-iharduerarcn oinarriak, lehiaren defentsa, berdintasunerako oinarrizko baldintzak, zuzenbide pribatuko eta auzibideko legedia eta osasun-arloa.

Bigarrenik, legediaren eraberritze honen sorburu den beste bigarren ideia bat legeak ageri duen sistematizatzeko ardura da. Horren arabera, araubidezko sail bakar batean bilduko dira antolaketari buruzko erabaki guztiak, eta horiei, produktu eta zerbitzuen sustapenerako merkataritza-iharduerarcn araudia ere gehituko zaie, merkataritza-lehiaketek osatutakoa. Halaber, testu berriak publizitate eta informazioari buruzko erabakiak ere baditu, bai eta araudietako aginduen eraginkortasunaren kontrolari buruzko idazpuru bat ere.

Testuaren sistematizazioa praktikotasunez egin da, eta, ondorioz, aginduen idazkera eta arlo honekin lotuta dauden edo arlo berari dagozkion beste jaurbide batzuen aipamenak benetan ulergarriak dira. Horrela, lege honek helburu duen araugintzari argitasun nabaria eman zaio, edukinen zehaztasunari kalterik egin gabe, edukinok araudi bidez garatzeko errazak gerta daitezkeelarik. Horri esker, zuzenbide-estatuaren ihardueraako ezinbestekoak diren gai honen lege-defentsari buruzko alderdiak indartuko dira.

Hirugarrenik, eraberritzea planteatzerakoan orientabidezko zentzu zabal eta parte hartzekoa izan da kontuan. Bideratzeko ahalmena aginduek azaltzen duten merkatu eta merkataritza-iharduerarekiko ikuskeran islatzen da.

Zabaltasuna eta parte hartzeko izaera arauaren onarpenaren aurreko eta ondorengo zenbait alderdik adierazten dute.

Batetik, araua prestatzeko lanetan kontsumitzaile, langile, enpresari eta udalek parte hartu dute. Haietan sortu diren gogoetak baliagarriak izan dira aginduen ikusmolde egokituagoa emateko, bai eta doakienek harrera hobea egiteko ere.

máquinas automáticas, o han sido objeto de regulación insuficiente.

Este ánimo actualizador de la reforma resulta asimismo patente en la concepción de empresa comercial y de su funcionamiento que ofrece el nuevo texto. De una parte, los comerciantes han de conocer su negocio, planear sus actividades en el tiempo; en definitiva, organizar su empresa. Por otra, las empresas no han de incurrir en funcionamientos irregulares, perturbadores del mercado y de su necesaria transparencia, como única garantía para los múltiples intereses que en el mismo confluyen, en ocasiones en forma vehementemente enfrentada.

El espíritu renovador de la reforma se pone finalmente de relieve desde el momento en que, siendo una norma autonómica, sus preceptos intentan apurar la competencia normativa en la materia. Este ámbito está siendo perfilado por diferentes pronunciamientos del Tribunal Constitucional en materias conexas o concurrentes, como las de bases de actividad económica, defensa de la competencia, condiciones básicas de igualdad, legislación privada y procesal y sanidad.

Una segunda idea inspiradora de la presente reforma legislativa se traduce en la preocupación sistematizadora que la preside. De acuerdo con ella, se reúne en un solo cuerpo normativo el conjunto de las disposiciones sobre ordenación, a las que se añade la regulación de la actividad comercial de promoción de productos y servicios, constituida por los certámenes comerciales. Asimismo, el nuevo texto integra disposiciones sobre publicidad e información, además de un título dedicado al control de la efectividad de los mandatos normativos.

La sistematización del texto ha sido realizada con sentido práctico, por cuanto la redacción de sus preceptos y las referencias inexcusables a otros regímenes conexos o concurrentes resultan ciertamente comprensibles. Con ello, la vocación normativa de la presente ley se ve favorecida por una meridiana claridad no exenta de precisión en sus contenidos, que por lo mismo pueden entenderse fácilmente desarrollables por vía reglamentaria. Con ello se refuerzan los aspectos de seguridad jurídica en esta materia tan esenciales al funcionamiento de un Estado de Derecho.

En tercer lugar, la reforma se plantea con un sentido más orientador, abierto y participativo. Su alcance orientador se refleja en la concepción de mercado y de la actividad comercial que expresan sus preceptos.

El valor abierto y participativo del mismo se manifiesta en diversos aspectos previos y posteriores a la aprobación de la norma.

Por una parte, cabe señalar que las labores preparatorias de la norma han contado con la participación de consumidores, trabajadores, empresarios y ayuntamientos. Las reflexiones que de ellas han surgido han contribuido a dar un enfoque más ajustado a sus preceptos, a la vez que a dotarla de una mayor receptividad hacia sus destinatarios.

Bestetik, arauan, merkataritza-iharduaeretarako kide anitzeko partaidetza-organo bat sartu da, gizarte- eta ekonomia-eragileen arteko eztabaidaren bitartez gai honetan adostasunezko politika zabalagoa garatu ahal izan dadin.

Azkenik, Euskal Herriko Autonomi Estatutuaren 3/1979 Lege Organikoan jasotzen diren aginpideak izendatu behar dira, bereziki 10. ataleko 25, 27, 28 eta 31 zenbakietan agertzen direnak, lege honen gaitzaile baitira.

## I. IDAZPURUA EZARPEN EREMUA

**1. atala.- Legearen helburua**

Lege honen helburua merkataritza-iharduerari administrazio-araubidea ezartzea da, bai eta Euskal Herriko Autonomi Elkarteko merkataritza-egitura hobetzea ere.

**2. atala.- Merkataritza-iharduera. Zer den**

Lege honen ondorioetarako, merkataritza-ihardueratzat hartzen da saltzeko eskuratutako produktu edo salgaiak merkaturatzea, salgai horiek nabarmen aldatu gabe, bai eta ekoizle, eskulangile edo industrilariek zuzenean azken saltzea ere.

Azken kontsumorako ondasunak, ekoizpen-prozesuetan, merkataritzakoetan edo besteri zerbitzuak ematekoetan sartzekoak ez direnak dira.

**3. atala.- Besteri zerbitzuak ematea**

Merkataritza-ihardueratzat hartuko da, halaber, besteri zerbitzuak ematea ere, aurreko atalean zehaztutako azken izaeraz merkatuan eskaintzen direnean.

Besteri zerbitzuak ematea ere lege honen agintepean egongo da, beti ere hari buruzko bestelako arau zehatzik ez dagoenetan.

## II. IDAZPURUA MERKATARITZA IHARDUERA GAUZATZEA

### I. atalburua
### Hatsapen orokorrak eta gauzatzeko baldintzak

**4. atala.- Merkataritza-ihardueraren esparrua**

Merkataritza-iharduera lehia aske eta leialaren hatsapenaren arabera garatuko da eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen defentsarena kontuan izanez, merkatu-ekonomiaren eta haren plangintza orokorraren esparruan.

**5. atala.- Ohiz kanpoko neurriak eta legez kanpoko praktikak**

1.- Aurreko atalean ezarritakoari kalterik sortu gabe, Eusko Jaurlaritzak, merkataritzako aginpidea

Por otra parte, en la norma se introduce un órgano de participación colegiado sobre la actividad comercial, en el que por la vía del debate de los agentes sociales y económicos pueda desarrollarse una política más abierta y consensuada en la materia.

Quedan por indicar finalmente las competencias recogidas en la Ley Orgánica 3/1979, del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, y señaladamente los preceptos recogidos en los números 25, 27, 28 y 31 de su artículo 10, como habilitantes de esta ley.

## TÍTULO I ÁMBITO DE APLICACIÓN

**Artículo 1.- Objeto de la ley**

Es objeto de la presente ley la regulación administrativa de la actividad comercial y la ordenación y mejora de la estructura comercial en la Comunidad Autónoma del País Vasco.

**Artículo 2.- Actividad comercial. Concepto**

A los efectos de la presente ley se entiende por actividad comercial la puesta a disposición del mercado de productos o mercancías adquiridas con esa finalidad, sin modificación sustancial de las mismas, así como la venta de bienes de consumo final realizada directamente por los productores, artesanos o industriales.

Son bienes de consumo final los no destinados a integrarse en procesos de producción, comercialización o prestación de servicios a terceros.

**Artículo 3.- Prestación de servicios**

También se considera actividad comercial la prestación de servicios cuando se oferten al mercado con el carácter final definido en el artículo anterior.

Esta ley será de aplicación a la prestación de servicios en todo aquello no regulado por normativa específica relativa a los mismos.

## TÍTULO II DEL EJERCICIO DE LA ACTIVIDAD COMERCIAL

### Capítulo I
### Principios generales y condiciones para su ejercicio

**Artículo 4.- Marco de la actividad comercial**

El ejercicio de la actividad comercial se desarrollará de acuerdo con los principios de libre y leal competencia y de defensa de los consumidores y usuarios, en el marco de la economía de mercado y su planificación general.

**Artículo 5.- Medidas excepcionales y prácticas no permitidas**

1.- Sin perjuicio de lo establecido en el artículo anterior, el Gobierno Vasco, a propuesta del De-

duen sailaren proposamenez, ohiz kanpo iharduerarako neurriak hartu ahal izango ditu elikagaien eta/edo behar-beharrezko produktuen banaketa-bideetan, horniketa-defizitak hala eskatzen duenean.

2.- Merkataritza-iharduera gauzatzerakoan ezin egingo da produktuen ohizko banaketaren edo zerbitzu-emanketen prozesuan unean uneko edo etorkizunerako arrazoitu gabeko bereganatze, geratze edo garestitzea sor dezakeen praktikarik, ez eta inolako bereizkeriarik sor dezakeenik ere, horrelako praktikak kontsumitzaile eta erabiltzaileen kalterako izan daitezenean.

**6. atala.- Gauzatzeko baldintzak**

1.- Merkataritza-iharduerak indarrean dagoen legediaren arabera beharrezko gaitasun juridikoa dutenek gauzatuko dituzte.

2.- Enpresa-askatasunaren hatsapen orokorrari kalterik sortu gabe, baldintza eta gaitasun jakin batzuk edo halako titulazio eskatu ahal izango dira administrazioko emakida edo baimen bereziren bat behar duten edo produktu edo zerbitzuaren izaera dela eta trataera berezia eskatzen duten merkataritza-iharduerak gauzatzeko, bai eta herri-interesa kontuan hartzeagatik ere.

3.- Jaurlaritzak, 21. atalean jasotakoari kalterik sortu gabe, merkataritzako iharduera-modu jakin batzuetan aritzeko baldintzatzat jo ahal izango du, araudiz, berme edo fidantzak ematea, interes orokorreko arrazoiak medio.

**7. atala.- Merkataritza-enpresen betebeharrak**

Merkataritza-enpresek beren iharduera eta ihardunbiderako ezarrita dauden agiri, informazio, liburu edo erregistroari buruzko betebeharrak bete beharko dituzte eta dagozkien Ekonomia Iharduerağatiko Zergaren idazpuruetan izena emanda egon beharko dute.

**II. atalburua**
**Eskaintzaren eta prezioen baldintzak**

**8. atala.- Eskaintzaren baldintzak**

1.- 4. atalean ezarritakoaren arabera, merkataritza-iharduera gauzatzerakoan, produktu edo zerbitzuen jatorri, kalitate eta kopurua, prezioa eta salmentako edo emanketako baldintzak, eskainitakoak izango dira eta, beti ere, haiek arautzen dituen araudiaren arabera eska daitezkeenak.

Eskaintzaileak, horretarako, produktu edo zerbitzua ezagutzeko informazio egokia, erabilerak dituen arriskuak eta eskuratzeko baldintzak jakinarazi beharko ditu.

2.- Halaber, merkataritza-eragiketarik gertatzen bada eta hartzaileak hala eskatuz gero,

partamento competente en materia de comercio, con carácter excepcional podrá adoptar medidas de intervención en los procesos de distribución de productos alimenticios y/o de primera necesidad cuando así lo exigieran déficits de abastecimiento.

2.- En el ejercicio de la actividad comercial no podrán realizarse prácticas que supongan actual o potencial acaparamiento, paralización o encarecimiento injustificados en el proceso normal de distribución de los productos o prestación de servicios, o bien que supongan discriminación alguna, cuando supongan un perjuicio para los consumidores y usuarios.

**Artículo 6.- Condiciones para su ejercicio**

1.- El ejercicio de actividades comerciales se realizará por quienes ostenten la capacidad jurídica necesaria con arreglo a la legislación vigente.

2.- Sin perjuicio del principio general de libertad de empresa, se podrán exigir determinadas condiciones y aptitudes o titulación para ejercer aquellas actividades comerciales sujetas a especial concesión o autorización administrativa, o que requieran un tratamiento singular por razón de la naturaleza del producto o servicio, así como por consideraciones de interés público.

3.- El Gobierno podrá condicionar reglamentariamente, sin perjuicio de lo señalado en el artículo 21, el ejercicio de determinadas modalidades de actividad comercial a la prestación de garantías o fianzas, justificadas por causas de interés general.

**Artículo 7.- Obligaciones de las empresas comerciales**

Las empresas comerciales deberán cumplir con las obligaciones sobre documentación, información, libros o registros establecidos para su régimen y funcionamiento, así como estar dadas de alta en los correspondientes epígrafes del Impuesto de Actividad Económica.

**Capítulo II**
**De las condiciones de la oferta y de los precios**

**Artículo 8.- Condiciones de la oferta**

1.- De acuerdo con lo previsto en el artículo 4, en el ejercicio de la actividad comercial, el origen, la calidad y la cantidad de los productos o servicios, su precio y condiciones de venta o prestación, serán los ofrecidos y en todo caso los exigibles conforme a la normativa reguladora de los mismos.

A tal efecto, se prestará por el oferente la información que resulte apropiada para el conocimiento del producto o servicio, riesgos de su utilización y condiciones de adquisición.

2.- Igualmente, en caso de transacción y a solicitud del adquirente, las empresas comerciales estarán

merkataritza-enpresek derrigorrez eman beharko dute merkataritza-eragiketari buruzko xehetasunak azaltzeko nahikoa agiri.

**9. atala.- Produktu eta zerbitzuen prezioa**

1.- Eskaintza egiten dutenek askatasuna izango dute produktu eta zerbitzuen prezioa finkatzeko, indarrean dagoen legediak ezarritako mugen salbuespenaz.

2.- Merkataritzarako produktuek argi azalduko dute zein den haien prezioa, hartzaileek eskaintzaileari galdetu beharrik izan ez dezaten. Erakustokietako gaien prezioak kanpotik ikusteko moduan jarri beharko dira. Erabiltzaileekiko zerbitzuak eskaintzen dituzten merkataritza-etxe guztiek jendeak ikusteko moduan azaldu beharko dituzte gaiei aplika dakizkiekeen prezioak.

Prezioen informazioari dagokionez, salbuespen edo baldintza bereziak ezarriko dira araudi bidez segurtasuna, homogeneotasuna nahiz produktu edo zerbitzuaren izaera dela eta.

3.- Multzoka saltzeko diren produktuetan, neurri-unitate bakoitzari dagokion prezioa adieraziko da. Multzoka saldu ohi diren produktuetan, aldez aurretik ezarritako kopuru edo bolumenetan jartzen badira salgai, ohizko neurri-unitateko prezioa azalduko da, produktuaren neurria eta prezioa guztira.

4.- Iragarritako salmenta-preziotzat hartuko da eskura ordaindu ondoren lortutako produktu edo zerbitzuari zerga eta guzti dagokion prezioa.

5.- Merkatariak onartzen diren ordainbideak zeintzuk diren azalduko du, bai eta produktua itzultzeko aukerarik ba al dagoen ala ez eta itzultze hori, erosleari interesatzen edo komeni zaiolako bakarrik bada, zein baldintzatan gauzatuko den ere.

## III. atalburua
## Bidegabeko publizitatea

**10. atala.- Bidegabeko publizitatea merkataritza-iharduera gauzatzerakoan**

1.- Eusko Jaurlaritzak, atal honetan ezarritakoaren arabera eta kontsumitzaile eta erabiltzaileen bidezko interesen defentsarako, merkataritza-iharduera gauzatzerakoan bidegabeko publizitatea erabiltzea saihesteko beharrezkoak diren ekintzak sustatuko ditu.

2.- Horretarako, eta legez ezarritako ekintzei kalterik sortu gabe, bere kabuz edo doakionaren eskariz, bidegabeko publizitatea eten edo aldatzeko ihardunbidea izapidatu ahal izango du Eusko Jaurlaritzak auzitegi aginpidedunean, indarrean dagoen publizitateari buruzko legediaren arabera.

obligadas a expedir documentación suficiente sobre los diversos extremos relativos a la transacción.

**Artículo 9.- El precio en los productos y servicios**

1.- El precio de los productos y servicios será fijado libremente por los oferentes, sin más limitaciones que las impuestas por la legislación vigente.

2.- Los productos expuestos para su comercialización estarán marcados con su precio de forma clara, de modo que resulte innecesaria consulta alguna al oferente. Los precios de los artículos expuestos en los escaparates resultarán visibles desde el exterior. Todos los establecimientos que presten servicios a los usuarios exhibirán al público de forma perfectamente visible los precios aplicables a los mismos.

Reglamentariamente se establecerán las excepciones o condiciones especiales en la información de precios por motivo de seguridad, de homogeneidad o de la naturaleza del producto o servicio.

3.- En los productos que se vendan a granel, se indicará el precio por unidad de medida. En aquellos productos que habitualmente se vendan a granel y se presenten a la venta en cantidades o volúmenes preestablecidos, se expondrán a la venta con indicación del precio por unidad de medida habitual, la medida del producto y el precio resultante.

4.- El precio de venta anunciado se entenderá como el total del producto o servicio adquirido al contado, incluido el conjunto de los tributos.

5.- El comerciante explicitará los medios de pago admitidos, así como la posibilidad o no de devolución del producto y condiciones de la misma cuando se derive, exclusivamente, del interés o conveniencia del comprador.

## Capítulo III
## De la publicidad ilícita

**Artículo 10.- Publicidad ilícita en el ejercicio de la actividad comercial**

1.- El Gobierno Vasco, en los términos establecidos en el presente artículo y en orden a la protección de los legítimos intereses de los consumidores y usuarios, promoverá las acciones necesarias tendentes a evitar la utilización de la publicidad ilícita en el ejercicio de la actividad comercial.

2.- A tal fin, y sin perjuicio de las acciones legalmente establecidas, el Gobierno Vasco podrá, de oficio o a instancia de parte, tramitar un procedimiento encaminado a instar el cese o rectificación de la publicidad ilícita ante la jurisdicción competente, de acuerdo con la legislación vigente en materia de publicidad.

3.- Sailarteko organo bat osatuko da araudi bidez eta hari egotziko zaizkio aurreko idazatian ezarritako ahalmenak.

## IV. atalburua
## Merkataritza-etxea

**11. atala.- Merkataritza-etxea**

Merkataritza-iharduera merkataritza-etxe batean gauzatu beharko da, lege honen III. idazpuruan, salmenta-modu berezici buruzkoan, ohartemandako salbuespenetan ezik.

Merkataritza-etxetzat hartuko dira merkataritza-iharduera batera atxikitako eraikinak eta tegiak.

Jendearentzat irekita daudeneko ordu eta egunak kanpoaldetik ikusteko moduan jarriko dira merkataritza-etxeetan.

**12. atala.- Irekitzeko baimena**

Merkataritza-etxeak irekitzeko baimenak udalek emango dituzte lege honetan ezarritakoan oinarrituz eta ezartzekoa den araudiaren arabera.

**13. atala.- Merkataritza-etxeak jartzea**

Eusko Jaurlaritzak ezarri ahal izango ditu merkataritza-etxeak jartzeari buruzko udal-arauek jarraitu beharko dituzten irizpideak, ondorengo helburuak lortzearren:

a) Merkataritza-hornikuntzaren eta horren lurralde-banaketaren arteko oreka egokia.

b) Enpresa txiki eta ertainaren sustapena lehiarako askatasunaren esparruan.

c) Kontsumitzaileen beharrak beteko dituzten beste batzuk, haien bidezko interesak defendatuz.

Euskal Herriko Lurralde Antolaketari buruzko 4/1990 Legean ohartemandako lurralde-antolaketarako tresnetan finkatuko da zer-nolako lurralde-irizpideak erabiliz jarri edo aldatuko diren salmentarako 2.000 metro koadro baino azalera handiagoa duten merkataritza-etxeak edota, handiturik, azalera hori lortu edo gainditzen dutenak.

# III. IDAZPURUA
# SALMENTA MODU ETA PRAKTIKA BEREZIAK

## I. atalburua
## Ohizko merkataritza-etxetik kanpoko salmentak

**14. atala.- Motak**

Ohizko merkataritza-etxetik kanpo gauzatutako salmentak dira kaleko salmentak deiturikoak, etxez

3.- Reglamentariamente se constituirá un órgano interdepartamental al que se atribuirán las facultades previstas en el apartado anterior.

## Capítulo IV
## Del establecimiento comercial

**Artículo 11.- Establecimiento comercial**

La actividad comercial habrá de ejercerse en establecimiento comercial, salvo las excepciones previstas en el título III de esta ley, dedicado a las modalidades especiales de venta.

Se considerarán establecimientos comerciales las edificaciones y dependencias afectas a una actividad comercial.

Los horarios y días de apertura al público se expondrán de forma visible desde el exterior de los establecimientos.

**Artículo 12.- Licencia de apertura**

Las licencias de apertura de los establecimientos comerciales serán concedidas por los ayuntamientos basándose en lo previsto por esta ley y con arreglo a la normativa aplicable.

**Artículo 13.- Implantación de establecimientos comerciales**

El Gobierno Vasco podrá establecer criterios a los que habrán de ajustarse las normas municipales en materia de implantación de establecimientos comerciales dirigidos a alcanzar los siguientes objetivos:

a) Un adecuado equilibrio entre el equipamiento comercial y su distribución territorial.

b) El impulso de la pequeña y mediana empresa en el marco de la libertad de competencia.

c) Aquellos otros que incidan en la satisfacción de las necesidades de los consumidores protegiendo sus legítimos intereses.

En los instrumentos de ordenación territorial previstos en la Ley 4/1990, de Ordenación del Territorio del País Vasco, se establecerán los criterios territoriales de aplicación para la implantación o modificación de establecimientos comerciales con superficie de venta superior a 2.000 metros cuadrados o cuando la misma se alcance o supere por ampliación.

# TÍTULO III
# DE LAS MODALIDADES Y PRÁCTICAS ESPECIALES DE VENTA

## Capítulo I
## Ventas realizadas fuera de establecimiento comercial permanente

**Artículo 14.- Clases**

Son ventas efectuadas fuera del establecimiento comercial permanente las denominadas venta ambu-

etxekoak, urrutikoak eta aldizkoak.

**15. atala.- Kaleko salmenta. Zer den**

Kaleko salmenta ohizko saltzaileek edo noizean behin saltzen dutenek merkataritza-etxe batetik kanpo gauzatutako salmentak dira, saltoki edo eraikuntza desmuntagarrietan edota ibilgailuetan. Kaleko salmentak udalaren baimena beharko du; baimen hori bestereganaezina izango da eta gehienez urtebeteko iraupena izango du.

Merkataritza-lekuetako sarbidean eta erakustokien aurrean ezin egingo da salmenta-mota hori.

**16. atala.- Kaleko salmenta arautzea**

1.- Udalek beren eraginpeko lurraldeetan arautu ahal izango dute kaleko salmenta. Antolatuta ez dagoen udaletan ezin gauzatuko da kaleko salmenta. Udal-arauek derrigorrez ezarri beharko dituzte:

a) Baimena lortzeko baldintzak; ondorengoak izango dira gutxienez:

1.- Saltzailearen bizilekua jakinaraztea.

2.- Dagozkion Ekonomia Ihardueragatiko Zergaren idazpuruetan izena emanda egotea eta zerga horren ordainketak eguneratuak izatea.

3.- Dagokion Gizarte Segurantzaren jaurbidean izena emanda egotea.

4.- Merkataritza-produktuei eta instalakuntzei buruzko berariazko arauek ezartzen dituzten garbitasun- eta osasun-baldintzak edo bestelakoak ere betetzea.

b) Kaleko salmenta-mota desberdinen ezaugarriak zehaztea. Horren arabera, ondorengoak bereiziko dira:

1.- Betidanik antolatu diren aldizkako merkatuak edota berriak, leku jakinetan eta maiztasun finko batez jartzen direnak. Gehienez astean bitan antolatuko dira.

2.- Azokak, jaiak edo herriko ospakizunak direla eta, noizean behin ezartzen diren merkatuak.

3.- Kamioi-denda edo kaleetan jartzen diren postuetako salmentak, egoera eta baldintza jakinetan baimendutakoak.

c) Lekua, salbuetsitako inguruneak, maiztasuna, ordutegia, baimenen kopurua eta baimendutako produktuak zehaztea.

lante, venta a domicilio, venta a distancia y venta ocasional.

**Artículo 15. Ventas ambulantes. Concepto**

Son ventas ambulantes las realizadas por vendedores habituales u ocasionales fuera de un establecimiento comercial, en puestos o instalaciones desmontables, así como en vehículos. El ejercicio de la venta ambulante requerirá autorización municipal, que tendrá carácter intransferible y una vigencia máxima anual.

No podrá efectuarse esta modalidad de venta en acceso a lugares comerciales ni ante escaparates.

**Artículo 16.- Regulación de la venta ambulante**

1.- Los ayuntamientos podrán regular la venta ambulante en el territorio de su municipio. En los municipios donde no exista ordenación de venta ambulante, ésta no podrá realizarse. La regulación municipal deberá necesariamente establecer:

a) Los requisitos para obtener la autorización, que como mínimo serán los siguientes:

1.- Indicar el domicilio del vendedor.

2.- Estar dado de alta en los epígrafes correspondientes del Impuesto de Actividad Económica y encontrarse al corriente de su pago.

3.- Estar dado de alta en el régimen de la Seguridad Social correspondiente.

4.- Cumplir los requisitos higiénico-sanitarios o de otra índole que establezcan las reglamentaciones específicas relativas a los productos comercializados e instalaciones.

b) La determinación de las características de los tipos de venta ambulante. En este sentido se diferencian:

1.- Mercados periódicos de carácter tradicional o de nueva implantación, ubicados en lugares o espacios determinados y de periodicidad fija. Estos sólo podrán celebrarse durante un máximo de dos días a la semana.

2.- Mercados ocasionales instalados con motivo de ferias, fiestas o acontecimientos populares.

3.- Venta realizada en camiones-tienda o puestos instalados en la vía pública que se autorizan en circunstancias y condiciones precisas.

c) La concreción de los lugares, perímetros exceptuados, frecuencia, horario, número de autorizaciones y productos autorizados.

2.- Baimenean argi azalduko da zein produkturi dagokion, bai eta zein leku, egun eta ordutan egin ahal izango duten baimendunek kaleko salmenta.

3.- Kaleko saltzaileak nahitaez jakinarazi beharko du, ageriko txartel baten bidez, kontsumitzaileen erreklamazioei, halakorik balego, erantzungo zaien lekuko helbidea. Helbide hori beti ere fakturan edo salmenta-egiaztagirian azalduko da.

**17. atala.- Salbuetsitako hiri-ingurunea**

1.- 15.000 biztanletik goragoko udal guztietan zehaztuko da "salbuetsitako hiri-ingurunea", eta bertan ezin gauzatuko da kaleko salmenta.

2.- Salbuetsitako hiri-ingurunea bertako udalak zehaztuko du, dagokion merkataritza-ganbara ofizialari entzun ondoren, ingurune horretako merkataritza-hornikuntzaren eta horrek herritarren kontsumo-gaitasunarekiko duen egokitasunaren arabera.

3.- Ezarriko den salbuetsitako hiri-ingurunea homogeneoa eta etengabea izango da, eta, beti ere, hirigunean kokatuko da.

**18. atala.- Salbuespenak**

Azokak, jaiak, herriko ospakizunak edo tradiziozkoak direla eta, aurreko ataleko lehen idazatian aipatzen den salbuetsitako hiri-ingurunean kaleko salmenta gauzatzeko debekutik kanpo geratuko diren merkatuak araudiz ezarriko dira, dagokien udalei eta udal horretako merkatari eta kontsumitzaileen elkarterik ordezkagarrienei entzun ondoren.

**19. atala.- Jagotea eta kontrola**

Kaleko salmentari dagokionez, udalei dagokie garbitasun-, osasun- eta segurtasun-arauak eta merkataritza-iharduera arautzen dutenak betetzen direla bermatzea, bai eta arau-hauste arin eta larriak kontrolatu eta zigortzea ere, beste herri-administrazio batzuei egotzitako aginpideei kalterik sortu gabe.

**20. atala.- Etxez etxeko salmenta**

1.- Etxez etxeko salmentatzat hartzen da bizilekn pribatuetan, astialdi- eta bilera-lekuetan, lantokietan eta antzekoetan egindako eskaintzaz gauzatzen dena eta ez saltzailearen merkataritza-etxean egindakoaz.

2.- Salmenta-mota hori eskaintzeko publizitatea kontsumitzaileari eman beharko zaio, eta ondorengo alderdiak izan beharko ditu:

a) Enpresaren bereizgarriak eta helbidea.

2.- La autorización indicará los productos a que se refiere, así como lugares, días y horas en que podrá desarrollarse la venta ambulante por sus titulares.

3.- El vendedor ambulante vendrá obligado a informar, mediante cartel visible, de la dirección donde se atenderán, en su caso, las reclamaciones de los consumidores. Dicha dirección deberá figurar en todo caso en la factura o comprobante de la venta

**Artículo 17.- Perímetro urbano exceptuado**

1.- En todos los municipios con más de 15.000 habitantes se determinará un perímetro urbano exceptuado en el cual la venta ambulante no podrá practicarse.

2.- El perímetro urbano exceptuado se determinará por los respectivos ayuntamientos, oída la Cámara Oficial de Comercio correspondiente, en razón al nivel de equipamiento comercial existente en la zona y su adecuación a la capacidad de consumo de su población.

3.- El perímetro urbano exceptuado que se establezca deberá ser homogéneo y continuo, y comprender en cualquier caso la zona central del casco urbano.

**Artículo 18.- Exclusiones**

Reglamentariamente se establecerán aquellos mercados que con motivo de ferias, fiestas, acontecimientos populares o tradicionales queden excluidos de la prohibición de practicar la venta ambulante en el perímetro exceptuado al que se refiere el número 1 del artículo anterior, previa audiencia de los ayuntamientos interesados y de las asociaciones de comerciantes y consumidores más representativas del municipio.

**Artículo 19.- Vigilancia y control**

Respecto a la venta ambulante, corresponde a los ayuntamientos garantizar el cumplimiento de las normas higiénicas, sanitarias y de seguridad, y de ordenación de la actividad comercial, así como el control y sanción de las infracciones leves y graves, sin perjuicio de las competencias atribuidas a otras Administraciones públicas.

**Artículo 20.- Venta a domicilio**

1.- Se considera venta a domicilio aquella en la que la oferta se produce en domicilios privados, lugares de ocio o reunión, centros de trabajo y similares que no sean el establecimiento del vendedor.

2.- La publicidad de la oferta de este tipo de venta, que deberá ser entregada al consumidor, incluirá los siguientes extremos:

a) Identificación y domicilio de la empresa.

b) Salmenta mota hau gauzatzeko baimenaren zenbakia.

c) Produktu edo zerbitzua merkatuan zalantzarik gabe hautemateko beharrezkoak diren datuak.

d) Ordaintzeko kopuru, modu eta baldintzak, bidaltzeko gastuak eta epea.

3.- Beste edozein motatako salmentaren bidez eskuratutako salgaiak etxera eramatea ez da aurreko gaiaren barruan sartuko.

**21. atala.- Baldintzak**

1.- Merkataritza-gaietan aginpidea duen sailari dagokio etxez etxeko salmenta-mota gauzatzeko baimenak ematea. Horretarako, eskatzaileek 16. ataleko lehen idazatiko a) puntuan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

Etxez etxeko salmenta gauzatzeko, enpresek berme-fidantza utzi beharko dute, araudiz finkatutako baldintzetan.

Etxez etxeko salmentak egiten dituzten enpresek administrazioko agintarien eskura izan beharko dute salmenta-mota horretan parte hartzen duten langileen zerrenda eguneratua.

2.- Saltzaileak erosleari erakutsi beharko dizkio enpresaren izena, salmentarako baimena eta berak zeren gisa dihardueen azaltzen duten agiriak.

**22. atala.- Urrutiko salmenta**

1.- Urrutiko salmenta da saltzaileak bere eskaintza komunikabideren baten bitartez eginez gauzatzen dena, eta erosleei eskakizunak komunikabide horren bidez edota urrutiko beste batez egiteko eskatzen dielarik.

2.- Merkataritza-gaietan aginpidea duen sailari dagokio salmenta-mota hori gauzatzeko baimenak ematea. Horretarako, eskatzaileek 16. ataleko lehen idazatiko a) puntuan ezarritako baldintzak bete beharko dituzte.

3.- Beti ere, benetako produktuak eskaintzen denaren ezaugarri berberak izango dituela bermatuko da.

4.- Eskaintzaren publizitateak ondorengo alderdiak jaso beharko ditu:

a) Enpresaren bereizgarriak, helbidea eta baimenaren zenbakia.

b) Produktu edo zerbitzua, merkatuan zalantzarik gabe hautemateko beharrezkoak diren datuak.

b) Número de autorización para la práctica de este tipo de venta.

c) Los datos esenciales del producto o servicio que permitan su identificación inequívoca en el mercado.

d) Precio, forma y condiciones de pago, gastos y plazo de envío.

3.- No se consideran comprendidos en el concepto anterior las entregas a domicilio de mercancías adquiridas por cualquier otro tipo de venta.

**Artículo 21.- Requisitos**

1.- Corresponde al Departamento competente en materia de comercio autorizar la práctica de la modalidad de venta a domicilio. A tal efecto, los solicitantes deberán cumplir los requisitos establecidos en el párrafo a) del apartado número 1 del artículo 16.

Para practicar la venta a domicilio, las empresas depositarán una fianza caucional, en las condiciones que se determinen reglamentariamente.

Las empresas de venta a domicilio deberán tener a disposición de la autoridad administrativa una relación actualizada del personal que intervenga en este tipo de venta.

2.- El vendedor deberá mostrar al comprador la documentación en la que conste la identidad de la empresa, la autorización para la venta y el carácter con el que actúa.

**Artículo 22.- Venta a distancia**

1.- Se entiende por venta a distancia aquella en la que el vendedor efectúa su oferta al comprador a través de algún medio de comunicación, solicitando que los compradores formulen sus pedidos mediante el mismo u otro medio de comunicación a distancia.

2.- Corresponde al Departamento competente en materia de comercio autorizar la práctica de esta modalidad de venta. A tal efecto, los solicitantes deberán cumplir los requisitos establecidos en el párrafo a) del apartado número 1 del artículo 16.

3.- En todos los casos, se garantizará que el producto real sea de idénticas características que el producto ofrecido.

4.- La publicidad de la oferta recogerá los siguientes extremos:

a) Identificación, domicilio y número de autorización de la empresa.

b) Los datos esenciales del producto o servicio que permitan su identificación inequívoca en el mercado.

c) Ordaintzeko kopuru, modu eta baldintzak, bidaltzeko gastuak eta epea.

5.- Kontsumitzaile edo erabiltzaileek aldez aurretik eskatu dituzten produktu edo zerbitzuak bakarrik bidali ahal izango dira.

Aurreko lerroaldian azaldutakoa ez da produktuen sustapenerako lagin edo opariak bidaltzerakoan ezarriko, guztiz doakoak direla argi eta garbi azaltzen bada, bai eta kontsumitzaileak inolako erantzukizunik ez duela ere.

**23. atala.- Aldizko salmenta**

1.- Aldizko salmenta izenez ezagutzen da iharduera horretarako ohizkoak ez diren merkataritza-etxeetan hilabete baino denbora laburragoz gauzatu eta kaleko salmenta ez dena.

2.- Salmenta-mota hori merkataritza-gaietarako aginpidea duen sailak baimendu beharko du.

3.- Eskabidean honako alderdi hauek zehaztu beharko dira:

a) Saltzailearen bereizgarriak.

b) Produktuen ezaugarrien azalpena.

c) Administrazioko eta zergabidezko baldintzak betetzea.

d) Aretoa erabiltzeko agiria.

Halaber, eskabidearen baldintzak egiaztatzeko agiriak aurkeztuko dira.

4.- Aldizko salmenta berariazko legepean ez dagoen enkante bidez gauzatzen denean, hau da, enkantetzat produktuak gainontzeko balizko erosleek baino diru-kopuru handiagoa eskaintzen duenari ematea dela ulertzen denean, produktua esleitzeko gutxieneko baldintzen zehaztapena ere eskatuko da.

## II. atalburua
## Beste salmenta-modu bereziak

**24. atala.- Merkealdiko salmenta**

1.- Enpresariak prezioak ezartzeko eta egoki deritzen eskaintzak egiteko duen askatasunari kalterik sortu gabe, publizitatean merkealdiko salmenta izena ez da erabiliko, indarrean dagoen legedian ezarritakoaren arabera, salmentetan ohizko prezioa, urtaro-aldaketa, denboraldi-amaiera edo aipatu legedian zehaztutako denboraldi edo sasoietan salgaiak berritu beharra dela eta, jaisten denean baizik. Nolanahi ere, merkealdien publizitatea urteko bi denboraldi edo sasoitara mugatuta

c) Precio, forma y condiciones de pago, gastos y plazo de envío.

5.- Sólo podrá efectuarse el envío de productos o servicios que previamente hayan sido solicitados por los consumidores o usuarios.

Lo señalado en el párrafo anterior no será de aplicación al envío de muestras o regalos de promoción, a condición de que figure claramente su carácter totalmente gratuito y la ausencia de toda obligación por parte del consumidor.

**Artículo 23.- Venta ocasional**

1.- Se denomina venta ocasional aquella que se realiza por un período inferior a un mes, en establecimientos que no tengan carácter comercial permanente para esta actividad, y que no constituya venta ambulante.

2.- Esta modalidad de venta deberá ser autorizada por el Departamento competente en materia de comercio.

3.- En la solicitud se determinarán los siguientes extremos:

a) Identificación del vendedor.

b) Descripción de las características de los productos.

c) Cumplimiento de los requisitos fiscales y administrativos.

d) Título de uso del local.

Asimismo, se adjuntará documentación justificativa de los extremos a que se refiere la solicitud.

4.- En aquellos supuestos en los que la venta ocasional sea en subasta no sujeta a legislación específica, entendiendo por subasta aquella en la que se adjudican productos a quien oferta un precio superior al del resto de los posibles adquirentes, se exigirá, además, la especificación de los requisitos mínimos para la adjudicación del producto.

## Capítulo II
## Otras modalidades especiales de venta

**Artículo 24.- Venta con rebaja**

1.- Sin perjuicio de la libertad para fijar precios por parte del empresario, así como de la realización de las ofertas que estime oportunas, en la publicidad la denominación de rebaja se utilizará exclusivamente para aquellas ventas que se realicen, conforme a lo dispuesto en la legislación vigente, con reducción del precio habitual de venta con motivo de los cambios de estación, fin de temporada o renovación de existencias durante los periodos o temporadas que se señalen en dicha

gelditukо da, denboraldi bakoitzean bi hilabetekoa izango delarik gehienera.

Salmenta-modu hau egiteko, merkataritza-gaietan aginpidea duen sailari horretan hasi baino lehen jakinaraziko zaio.

2.- Salmenta horietan, zalantzarik ez sortzeko moduan azalduko da produktu bakoitzaren lehengo prezioa eta orain eskaintzen dena, 9. ataleko 2. idazatian ohartemandako berezitasunez.

3.- Merkealdiko salmenta izenaren erabilera debekatuta dago ondorengo gaiak saltzeko:

a) Hondatuta daudenak.

b) Merkealdiko salmentarako eskuratutakoak.

c) Merkealdiko salmentak hasi baino hilabete lehenago azken kontsumitzailearentzako salgai ez zeudenak.

4.- Salgai dauden produktu guztiak merkealdikoak ez badira, beherapena dutenek egoki bereizita egon beharko dute besteetatik.

**25. atala.- Soberakinen salmenta**

1.- Soberakinen salmenta produktu hondatuak edo erabiltzen ez direnak saltzea helburutzat duen salmenta da.

2.- Salmenta-mota horretan eta horren publizitatean nahikoa argibide eman beharko da eragin duten egoera eta zergatiak azaltzeko.

3.- Salgai dauden produktu guztiak soberakin-salmentakoak ez badira, salmenta-mota honetan eskainitakoek besteetatik aldendurik egon beharko dute.

**26. atala.- Azken-salmentak**

1.- Azken-salmentatzat hartuko da ondorengo arrazoiren bat dela eta ohiz kanpo egindako salmenta:

a) Merkataritza-iharduerаren behin-behingo edo behin-betiko etenaldi osoa edo zatizkoa. Etenaldia zatizkoa bada, azken-salmentako salgaiak zein diren adierazi beharko da.

b) Aretoa itxi edo aldatzea.

2.- Azken-salmentak merkataritza-etxearen izakinak izan diren produktu edo salgaietan bakarrik izango du eragina.

3.- Azken-salmentako publizitate guztietan adierazi beharko dira eragin duten arrazoiak, bai eta ha-

legislación. En todo caso, la publicidad de rebajas estará limitada a dos períodos o temporadas por año con una duración máxima de dos meses por temporada.

La realización de esta modalidad de venta se comunicará al Departamento competente en materia de comercio previamente a su inicio.

2.- En estas ventas deberá señalarse de forma inequívoca, en cada producto, el precio anterior y el que se ofrece, con las particularidades previstas en el número 2 del artículo 9.

3.- Queda prohibida la utilización de esta denominación en la venta de los siguientes artículos:

a) Los deteriorados.

b) Los adquiridos para esta finalidad.

c) Los que no estuvieran a la venta al consumidor final con un mes de antelación a la fecha de inicio de la venta con rebaja.

4.- En el supuesto de que la venta con rebaja no afecte a la totalidad de los productos comercializados, los rebajados estarán suficientemente diferenciados del resto.

**Artículo 25.- Venta de saldos**

1.- Se entiende por venta de saldos aquella que tiene por objeto la de productos deteriorados o en desuso.

2.- Este tipo de venta y su publicidad deberá ir acompañada de información suficiente de las circunstancias y causas concretas que la motiven.

3.- En el supuesto de que la venta de saldos no afecte a la totalidad de los productos comercializados, los artículos ofrecidos por esta modalidad de venta deberán estar físicamente separados de aquellos que no lo estén.

**Artículo 26.- Venta en liquidación**

1.- Se entiende por venta en liquidación aquella de carácter excepcional motivada por:

a) Cese total o parcial, definitivo o temporal, de la actividad comercial. En el supuesto de cese parcial tendrá que indicarse la clase de mercancías objeto de liquidación.

b) Cierre o transformación del local.

2.- La venta en liquidación se limitará a los productos o artículos que vengan formando parte de las existencias del establecimiento.

3.- En toda publicidad de una venta en liquidación tendrá que indicarse las causas que la motivan,

siera-data eta iraupena ere. Halaber, lehengo prezioa eta salgai horrentzat eskaintzen dena edo azken-salmentari aplika dakiokeen beste edozein pizgarri ere adierazi beharko da.

4.- Azken-salmenta merkataritza-gaietako aginpidea duen sailari jakinarazi beharko zaio hasi baino zazpi egun lehenago, zergatia, hasiera-data, iraupena eta salgaien zerrenda ere azalduz.

27. atala.- **Baldintzak**

Azken-salmentak produktuak salgai egon diren merkataritza-etxe berean egin beharko dira, ezinbesteko arrazoiren batek edo epailearen edo administrazioaren ebazpenen batek galeraztcn ez badu edota salmenta egiteko zergatiek besterik eskatzen ez badute.

Azken-salmenta deitzeko, aurrekoa amaitu zenetik 12 hilabeteko epeak igaro beharko du, ezbehar edo ezinbesteko arrazoiak eragindakoa ez bada.

**28. atala.- Sustapeneko salmenta**

1.- Sustapeneko salmentak izango dira produktu edo zerbitzu jakin batzuen salmenta ezagutarazi edo bultzatzea helburutzat dutenak erosleei abantailak eskainiz, hala nola, deskontuak, opariak, sariak edo beste edozein pizgarri.

2.- Sustapeneko salmentak nahikoa argibide eman beharko du aldez aurretik edo egin bitartean, alderdiok argi azalduz:

a) Sustapenaren xede diren produktu edo zerbitzuak.

b) Sustapenaren baldintzak.

c) Sustapenaren indarraldia.

3.- Saltzaileak itxaron daitekeen eskaera hornitzeko adina izakin izan beharko du, eta publizitateak ez du eskainitako produktuaren izakinik den alditik gora iraungo.

4.- Sustapeneko salmentaren xede diren produktu edo zerbitzuek ez dute euren balioa murritz dezakeen inolako kalterik izango.

**29. atala.- Salmenta automatikoa**

1.- Salmenta automatikoa horretarako prestatuta dauden makinen bitartez egindakoa da, eskatzen den diru-kopurua haietan sartu ondoren, saltzaileak bitarteko-lanik egingo ez duelarik.

